

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

### EUSKO JAURLARITZA

#### LAN ETA JUSTIZIA SAILA

##### Arabako Lurralde Ordezkaritza

#### **SAS Autosystemtechnik, SA enpresaren hitzarmen kolektiboko 2019ko soldaten behin betiko berrikuspena**

Ebazpena, Lan eta Justizietako Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Arabako lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da SAS Autosystemtechnik, SA enpresaren hitzarmen kolektiboko 2019ko soldaten behin betikoa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren Kodea: 01003142012004.

#### AURREKARIAK

2019ko urtarrilaren 24an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuaren eta langileen ordezkariak 2019ko urtarrilaren 24ko negoziazio-mahaian sinatutakoa, 2019ko behin betiko soldata berrikuspenen kariaz.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari honi dagokio, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuko 15.1.h artikulua –Lan eta Justiziako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2017ko apirilaren 21eko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren negoziazio batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

#### EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 4a- Arabako Lurralde ordezkariaren idazkari nagusia, ordezkariaren ordezkari, hala ezartzen du 2017/84 Dekretuaren 15.2 artikulua (2017ko apirilaren 21eko, 76. zk, EHAA). Cristina Vegas Egaña

2019ko soldata berrikusteko akta, SAS Autosystemtechnik, SA enpresaren hitzarmenarena, Gasteizko lantokian

2019ko urtarrilaren 24an, Gasteizen elkartu ziren, batetik, enpresaren ordezkariak, eta, bestetik, enpresa-batzordea eta langileen ordezkariak.

Alde biek aitortu diote elkarri ados jartzeko eta konpromisoak hartzeko gaitasuna, eta nor bere ordezkariaren ahotik;

## Agerraldian, zera esan dute

I. – Enpresaren hitzarmen kolektiboaren 10. artikularekin bat, aplikagarriak diren soldata-eta-aulak berrikusi behar direla, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, ehuneko 2,8ko igoera aplikatuz 2018ko abenduaren 31n indarrean zeudenei. Igoera behin aplikatuta.

Honako hau;

## Erabaki dute

Lehenengoa. – Soldata-eta-aula hau izenpetzea 2019ko urtarrilaren 1eko datarekin. Enpresak hori bera aplikatuko du 2019ko urtarrilari dagozkion nominetan.

LANBIDE-TALDEA	SOLDATA-MAILAK	2019 URTEKOA	HILEKO OIN. SOLDATA	APARTEKO ORDAINSARIAK
II. Taldea	PLM, APQP	32.710,85	2.336,49	2.336,49
III. Taldea	Teknikaria	31.972,49	2.283,75	2.283,75
	Txandako burua/Biltegiko burua	31.130,35	2.223,60	2.223,60
IV. Taldea	Koordinatzailea	31.080,95	2.220,07	2.220,07
	Mantentze lanetako 1.maila ofiziala	30.020,02	2.144,29	2.144,29
	Mantentze lanetako 2.maila ofiziala	29.179,04	2.084,22	2.084,22
V. Taldea	Auditorea, erreparadorea, eskorgalaria eta lider ACT (3. maila ofiziala)	28254,55	2.018,18	2.018,18
VI. Taldea	Espezialista	27.221,85	1.944,42	1.944,42
	Administraria	26924,27	1.923,16	1.923,16
VII. Taldea	Peoia	24.251,15	1.732,22	1.732,22

Bigarrena. – Enpresa-aholkulariari baimena ematea akta hau eta taula Lan Agintaritzaren aurrean aurkezteko.

Jorrazteko gai gehiagorik egon ez denez, akta hau sinatu dute bertaratutako aldeek.